

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

382/2021 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa, Diputatu Nagusiarena, 2021eko deialdian Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera ikergai duten ikerketa lanak sustatzeko Henrike Knörr beken ematea onesten duena

Azaroaren 5eko 322/2021 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera ikergai duten Henrike Knörr ikerketa beken deialdia onetsi zen.

Beka hauetarako hautagaiak aurkezteko epea bukatu ondoren, erabakia 2021eko abenduaren 22an hartu da, horretarako egindako aktan adierazten den bezala.

Ondorioz, epaimahaiaren epaia ikusirik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehengoa. Ematea Araban euskararen erabilera ikergai duten ikerketarako beka hauek:

– Lehen beka, 2.000,00 eurokoa, Mikel Pérez González, bere proiektu honengatik: “Gasteizko gazte elebidunen kode-alternantziarekiko jarrerak eta onargarritasuna”.

– Bigarren beka, 2.000,00 eurokoa, Iker Ondartza Padiernari, bere proiektu honengatik: “Araberan sakonduz”.

Bigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzako dagozkien zerbitzuek bekadunen alde transferentzia bidez ordain dezatela 4.000,00 euroko zenbatekoa, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastu aurrekontuko 02401.07800.4.8.0.00.02 “Henrike Knörr Bekak” partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 21.1.21 105.3839; lerroa: 02-35).

Hirugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorritik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, ekintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, ekintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria

LEXURI UGARTE ARETXAGA